

IÑAKI BOTA DAUE

KANPAZAR, 1975


GERRA ZIKINAREN HASTAPENA

Pako Aristi



IÑAKI BOTA DAUE

KANPAZAR, 1975:
GERRA ZIKINAREN HASTAPENA



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.
Liburu honek Oñatiko Udalaren sormen diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko maiatzean

Azala eta liburuaren diseinua:

A. Beltza

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-034-6

L.G.: D 537-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus   

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net

IÑAKI BOTA DAUE

KANPAZAR, 1975:
GERRA ZIKINAREN HASTAPENA

Pako Aristi

Etxabetarren leinua ugaria da. Liburuan haiei buruz (eta haiekin) mintzo garenenez, hona partaideen zerrenda:

Iñaki Etxabe, 1975ean hil zuten.
Juan Jose Etxabe, 1996an hil zen.
Joakin Etxabe, 2003an zendu zen.
Luis Etxabe lan hau egiten ari ginela hil da.

Beste anai-arrebak hauek dira:

Patri (Patrizio Etxabe)
Gregorio Etxabe
Marilu Etxabe
Itziar Etxabe

Jose Javier Uribetxeberria Itziarren gizona da, *Txatua* esaten diote.

Iñakiren alarguna Maria Angeles Okina da.

Haien seme-alabak:

Olatz Etxabe
Ainhua Etxabe
Aitor Etxabe

Proiektuaren bultzatzailea:

Oñatiko Gure Bazterrak Elkarte
Proiektuaren koordinatzailea:
Gure Bazterrak Elkarteko Ander Lizarralde

Liburu hau idazteko orduan ezinbesteko ekarpenak egiten dizkiguten guztiei:

Etxabe familia	Iñaki Egaña
German Agirreren familia	Aitor Aspuru
Javier Agirre	Gasteizko Martxoak 3 Fundazioa
Itziar Gabilondo	Jose Mari Urizar
Zelaiaren ilobak	Pello Urizar
(Iñaki, Ines, Beatriz eta Axun)	Mikel Martinez de Zuazo
Antonio Altuna, <i>Txatillo</i>	Jon Martinez
Xabier Galdos	Jose Angel Etxaniz
Miel Arregi	Eñaut Uribesalgo
Nazario Galdos	Aitane Goñi Landa
Pello Bonnefons Goyetche	Javier Buces
Angel Mari Milikua	Jose Angel Etxaniz
Jon Azkoaga	Añube taldekoak
Txomin Egiluz	Txemi Gorostiza

Eta anonimatuan geratu direnak.

Liburuko izen batzuk, haiek hala eskatuta, izenez aldatuta baitaude. Hauek dira asmatutako izenak:

Jesus Agirre
Bernardo Ugarte
Mertxe
Eulogio Azkarraga
Mikel

Denak benetako pertsonai eta testigantzei dagozkie.

AURKIBIDEA

1	ETXABE FAMILIAREN JAZARPENA	11
	Ostatu bat Kanpazar gainean	11
	Zoritxarraren mezularia	15
	Egun hura	18
	Aurreratutako agurra	20
	Iñaki eta politika	26
	Umearen aurre-sentipena	32
2	ZUEN BILA GATUZ	37
	Loa loa txuntxurrun berde	37
	Loa loa masusta	42
	Isiltasunaren pisua	47
3	BERANDU IRITSITAKO BABESA	49
	Hau nire kontura	49
	Atxiloketak, desterruak, torturak	54
	Metrailetan garaia	58
	Hidalgo kapitainaren gerra-estrategia	63
4	JOSEFI SAGASTIZABAL GERNIKAN	69
	Inkontrolatuak eta mertzenarioak	69
	Hamar egun berogailuari lotuta	72
	Bat gutxiago	76
5	TENTSIO POLITIKOAK	81
	Kardinalaren doluminak	81
	Sigla sorta bat	83
	Hileta bi	86
	Eskela baten bila	89
6	ARANTZAZUKO APOSTOLUAK	91
	Suzko torlojuak mendiaren ahotik	91
	Oteizaren zelaia	94
	Gomiztegiko begiratokia	96
	Gobernuaren bilera berezia	100
	La puta virgen	107
	Oñatiko razzia	109
7	JUAN ZELAIAREN BILA DOAZ	113
	Safaria	113
	Mendizaleak bota militarrekin	115

Afrika, Islandia	117
Radarrean	122
Zer dute Zelaiaren aurka?	125
Profil politiko baten aztarnak	128
Bigarren hilketa saiakera	132
Bi atedun taberna	134
Zelaiaren poliedroa	136
8 TAXILARIAREN AZKEN BIDAIA	143
Tiro hotsak gauean	143
Euen ebagitte	148
Eso es muy profundo	149
Nork hil du German Agirre?	151
Auto hau ezagutzen dut	153
Harreman anbiguoak	158
Bizitten be ez justien izten honeik	161
Bidaia gauaren barrunbean	164
Abertzale totala	166
ETAren gutuna	167
Zuzenketa publikoa	170
Teoria bat	173
9 OBSESIO BATEN HISTORIA	181
Iraganeko zorrak eta mendeku berriak	181
Mezulariaren heriotza	186
Negoziatu bai, negoziatu ez	190
Emaztearen zain	191
Loreak Agurtzaneren hilobian	196
Hitzak denboran zehar	200
EPILOGOA	207
Aitortza bai, baina...	207
Gizon ezkutua	209
Hierarkia militarra	213
Hipotesi bat	219
Iritsi da agindua	224
Agindu berria	225
Azken oharrak	229
ERANSKINA (GURE BAZTERRAK ELKARTEA)	233

ETXABE FAMILIAREN JAZARPENA

OSTATU BAT KANPAZAR GAINEAN

Hil zuten egunean, 1975eko urriaren 5ean, Iñaki Etxabe Orobengoa kilo inguruko txuleta bat jaten ari zen iluntzeko hamarrak inguruan, Kanpazar gainean zeukan Etxabe-Enea ostatuaren jatetxeko sukaldean, telebistari begira. Ondoan porroi bat ardo zeukan. Handik edatea gustatzen zitzaion, edalontzitik baino. Arku batek bereizten zituen bi espazioak, sukaldea eta mostradorea. Jose Antonio Agirre lehendakariaren argazki bat zeukan sukaldeko horman, barrutik baino ezin zitekeena ikusi, harentzat propio jarria bezala, kanpokoen begiradatik gordean. Frankismoan gaude, diktadurapean oraindik, eta garai hartan argazki hura, ikurrina bezala, zerbait klandestino zen, arriskutsua, norbait atxilotzeko modukoa.

Egun arraroa izan zen urriaren 5eko hura: eguerdian, Arantzazutik hurbil, bonba batek eztanda egin zuen Guardia Zibilaren Land Rover baten aurka, eta hiru agente hil zituen. Giro nahasia egon zen arratsalde osoan, bolborazko mehatxu baten lurrina airean, jende gutxi tabernetan, jende gutxi errepideetan. Ez dakigu Iñaki kezkatuta zegoen edo ez, baina ziur ez zuela espero ikusterik afaria bukatu bezain laster gertatu zena: hiru gizon aurpegi-estalian, metrailetak eskuetan mostradorearen beste aldean. Ziur ez zitzaiola burutik pasatu ere egin, inondik inora, Arantzazuko atentatuaren ordaina bera, bere bizitza, izango zenik. Bi anaia zeuzkan Iparraldean errefuxiaturik, Juan Jose eta Joakin; lehena, ETAko buruzagi garrantzitsua izandakoa.

1975eko urriaren 5ean hilabete eta erdiko bizitza geratzen zitzaion Franco diktadoreari, eta haren izena daraman erregimena kontrolatzen dutenek Juan Paredes Manotas *Txiki* eta Angel Otaegi Etxeberrira fusilatu dituzte zortzi egun lehenago, irailaren 27an, FRAP taldeko José Humberto Baena,

José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanzekin batera. Tentsio handiko garaia da: Arantzazuko atentatua da ETAk fusilamendu horiei eman dien erantzuna, odola odolaren truk, eta, Estatuaren segurtasun indar guztiak alerta gorrian dauden arren, ezin izan dute hiru agenteren heriotza eragotzi. Herio-kolpez erantzuten diote elkarri diktaduraren jarraipena ziurtatu nahi duten errepresio indarrek eta horren aurka erresistentzia armatua antolatu duen ETA erakundeak.

Arrasaten leinu ugaria eta ezaguna osatzen zuen Etxabe abizenaren magalean sortu eta hazitako familiak: zortzi seme-alaba ziren, Iñaki haietan zaharrena, 1936an jaioa. Gainerakoak: Juan Jose, Gregorio, Luis, Joakin, Marilu, Patri eta Itziar.

Bi ezaugarri nagusik zeharkatuko dituzte Etxabe familiako partaideen bizitzak: bokazio politikoak, alde batetik, eta bizibideak, bestetik. ETA erakundea eta ostalaritza dira senitarte honen erraietan aurkitzen diren ezaugarri nagusiak, haien nortasunaren lur-eremua zeharkatuko duten ibaiak, haien zoritxarra eta patua erabakiko dituzten markak.

Batetik, Juan Jose *Haundixe* ETAn sartu zen hasiera-hasieratik, buruzagi militarra izatera iristeraino, eta haren atzetik Joakin anaia; bestetik,



Etxabetarrek zoriontsu denak elkarrekin, gero iritsiko zitzaizkien zoritxarrak artean urrun, oso urrun zeudenean.

erakundetik urrundu ondoren, biek ireki zuten jatetxe bana, lehenak Donibane Lohizunen, bigarrenak Baionan. Familia honen historia latza haien aurka egindako era guztietako atentatu eta hilketa saiakeraz mukurru ageri da, heriotza eta zauri ugari ekarri dizkietenak. Esan liteke Espainiako Estatuaren obsesioaren jomuga izan zirela, gerra zikinak hartu zituen bidezidor ugarien metafora bat, eta atalez atal aletzen joango gara.

Ostalaritzaren ezaguera etxetik zetorkien: Aita Muxibar baserrikoa zuten, eta kalera jaitsi eta hark ireki zuen Muxibar izeneko ostatua Arrasaten. Umetatik giro hartan hezia eta hura ikusia zuelako edo, Iñaki anaia zaharrenak jatetxea ireki zuen 1964an Kanpazar gainean zegoen baserri batean, bere emazte Maria Angelesekin batera. Ostatuan jaio ziren hiru seme-alaba, Olatz, Aitor eta Ainhoa. Kontakizun hau hasten den unean Olatzek hamar urte ditu, Aitorrek zortzi eta Ainhoak lau.

Kanpazarreko gaindegi ederra Bizkaia da berez, Elorrioko udalerriaren parte. Jatetxea bide ondoan dago oraindik ere, gailurra baino metro batzuk lehenxeago, itxirik aspaldi honetan. Gainean lau norabide gurutzatzen dira: Elgetara, Angiozarrera, Elorriora eta Arrasatera daramaten bideak. Eta baso garai baten oinetan otordu-mahaiak daude paratuak. Gaur trafikoa



Iñakiren familia: Maria Angeles emaztea eta hiru seme-alaba. Ezkerretik hasita: Aitor, Ainhoa eta Olatz.

baretua badago ere, urteko egunik argitsuenetan jendea patxada ederrean bazkaltzen ari dela ikusiz igaroko dira bidaiariak Kanpazar gainetik.

Tabernaren ezkerrera, orain zelai bat dagoen lekuan bolatokia zegoen, eta txirristak, umeek han jolas egiteko gurasoak bazkaltzen ari ziren bitartean. Eraikinaren aurrean autoak eta kamioiak aparkatzeko lur sail handi bat dago, garai hartan bezalatsu.

Elorrio zortzi kilometrora, Arrasate laura, leku estrategikoa izana da behiala: garai hartan, Bilbora joateko bide nagusia zen, eta trafiko asko igarotzen zen handik. Bidegurutze garrantzitsua Durangora joateko ere, Bergara, Eibarrera... Kamioilariak, taxilariak, bizitza errepidean ematen zuen jendez betetzen zen ostatua. Goiko solairuan bazituzten logela batzuk, dozena bat edo, baina garai hartan ez zuten horietatik batere alokatzen, konfiantza handiko kamioilariren bati ez bazen. Lehenago, baina, erabiliak izan ziren: behin batean, esaterako, KAS txirrindulari talde osoak hartu zuen ostatu bertan. Gela hauek susmo iturri izan ziren beti polizientzat: Iñakiren anaiak ETan zeudela jakinik, hango militanteen gordeleku egokitza zeuzkaten. Gela haiek aitzakia izan ziren behin baino gehiagotan errepide-kontrolak jartzeko, miaketak egiteko, zelatatze-lanak...

Sukaldeko lanak Maria Angelesek egiten zituen, mostradorekoak Iñakik. 87 urte dauzka, gaur egun, bikote hartatik bizi den emazteak:

Ni Iñakirekin 17 urtetik nenbilen, beti elkarrekin, eta lanean ere egun osoa elkarrekin, imajinatu hura zer izan zen niretzako! Umetatik ia elkarrekin genbiltzan; ezkondu ginenean ere egun osoa batera, egun osoa, beti.

Eta bota du umoretsu: *«A veces riendo, y otras riñendo!»*.

Bazkari asko ematen zituzten, ehun menu, agian, eguerdiro, eta asteburuetan ezkontzak, jaunartzeak edo lagun arteko otordu jendetsuak. Senideen laguntza etengabea zuten hala behar zenean; hainbeste anai-arrebari bikoteak ere gehituz gero, elkartasunik gotorrena osatzeko moduko sarea osatzen zuten Etxabetarrek. Gregorio anaia eta bere emaztea ziren aldikako langile haietakoak. Gregorio:

Urriaren 5eko hartan, hamarrak laurden gutxiagora arte egon ginen Kanpazarren emaztea, seme biak eta neu. Han egoten ginen laguntzen domeketan. Eta hamarrak laurden gutxiagotan utzi genuen Iñaki txuleta bat jaten telebistaren aurrean. Etxera etorri ginen, eta mutikoak lotara eraman bezain laster, tinbrea!

Luis anaia Kanpazarren bizi zen, eta baita Pedro Gallastegi ere, inguruko Sagasta baserriko semea, morroi lane-tan hartua zeukatena, eta jaiotetxearen izenez deitu ohi zutena, *Sagasta*. Biek ikusi zuten Iñakiren erailketa.

Eta biak eramango ditu Hidalgo kapitainak Elorrioko kuartelera galdekatzera.

Ordea, Iñakirena ez zen egun haietako hilketa bakarra izan. Handik zazpi egunera, urriaren 12ko igandean, ia iluntzeko ordu berean, German Agirre Irasuegi taxilaria hil zuten Legutioko kuartelaren ondoan. Iñaki bezala, tiroz josita, 17 edo 18 balaz. Hasiera-hasieratik Kanpazarko hilketa-rekin zerikusiren bat zuela zabaldu zen jendearen artean, eta heriotza misterioitsu hori ere argituko dugu liburuan zehar.



Iñaki eta bere koinata Agurtzane dantzan: ilusioa nabaria da haien begiradan.

ZORITXARRAREN MEZULARIA

Urriaren 5eko gauean gaude.

Luisek autoa hartu zuen eta Arrasatera jaitsi zen herio suhar. Bera zen Gregorio anaiaren etxeko txirrina etengabe jotzen ari zena, etxeko guztiak asal-datzeraino. Gregorio zinegotzia zen Arrasateko udaletxean, eta alkateordea, berriz, familiaren lagun handi bat, Jose Antonio Altuna *Txatillo*. Iluntzean elkarrekin egonak ziren biak Kanpazarko ostatuan. Egun hartako bakea eta normaltasuna goitik behera astindu zuen gertaera izan zuten solasgai, ETAk Arantzazuko bidean leherrarazi zuen jeepa, eta hiru agente nola txikitu zituen.

Gregorio:

Luis etorri zitzaidan abisua ematera etxera. Iñaki bota zutela esan zigun. Orduan esan nion berari: «Hoa Altunarengana eta esaiok zer gertatu den, eta igotzeko

gora». Ni parrokoarengana joan nintzen zer gertatu zen esatera, eta biak igo ziren ostatura, Altuna eta parrokoa. Han egon ginen goizeko ordu biak arte edo.

Baina Luis, lehenago, Itziar arrebarengana joan zen:

Etxean geundela, laster tinbrea jo ziguten. Anaia zen, Luis, atentatua egon zela eta Iñaki hil zutela! Eta guk esaten genion: «Ezin liteke».

Itziarren senarra da Jose Javier Uribetxeberria, *Txatua*:

Orduan Bergarara joan nintzen, han bizi genuen eta Patri (Patrizio), Itziarren beste anaia bat. Zumelaga deitzen den jatetxearen aurrera iritsi eta kontrola! Pikoletok! Gelditu egin ninduten: «¿A donde va usted?», «¡Pues a por mi cuñado, porque otro cuñado mío ha tenido un atentado en Kanpazar!», «Pase, pase...». Bergaran Patri hartu eta Kanpazarrera jo genuen.

Sartu ginen eta Iñaki lurrean zegoen, odoletan. Gogoratzen naiz detaile batekin, bala batek hartzean jo zuen, hatz gabe utzi zuten. Gregorio, Luis... han zeuden. Guardia zibil bat, gogoratzen naiz, dardara batean zegoen, eta zigarro bat eskaini nion. Hiru-lau guardia zibil zeuden. Olatz, Mariangeles eta beste txikiak ez genituen ikusi. Gero jakin nuen Olatz, hamar urteko alaba, oso jende gutxi konturatu zen, baina Iñaki hil eta berehala tabernara jaitsi zela. Aita odoletan ikusi zuen, eta gora igo zen ziztuan. Behin ere ez diot horretaz ezer galdetu.

Bere ibilbide triste hartako hirugarren tinbrea jo zuen estu eta larri Luisek, Jose Antonio Altuna *Txatillo* alkateordearen etxekoa. Beldurrez hartu zuen honek txirrin-hotsa, arratsalde osoa tentsio bizian igarota baitzuen. Kontrolak zeuden Kanpazar inguruan, eta giro nahasia:

Kanpazar inguruan baserria geneukan, amarena. Hara joaten ginen umeekin domeketan, bazkaldu eta gero zazpietako futbol partidua ikusteko, eta hura amaitutakoan kalera jaisten ginen. Egun hartan, eguerdian, bazkaltzen hasita geundela, Joxe Ramon lehengusua etorri zen, eta esan zigun hiru guardia zibil bota zituztela Arantzazun. Ni larritu egin nintzen! Beldurrez nengoen geuk ere atentaturen bat jasotzeko, beldurrez entierroa Arrasaten izango zela eta joan egin beharko nuela, Arrasateko kuartelekoak baitziren hildakoak.

Baserrian emazteari esan nion: «*Yo me voy a Mondragón, a ver que pasa*», eta berak «*tú no vas a ningún sitio*». Azkenean utzi zidan Kanpazarko ostatura jaisten. Iñaki han zegoen. «Iñaki, ze pasau dok?», eta berak: «Etorri dok Elorrixoko bat eta esan justek Arantzazuko bidien hiru guardazobil hil dittuela». Baserriara bueltatu eta esan nien: «Gaur futbola hasi baino lehen etxera!».

Joan ginen etxera, urduri, eta gauean, telebista ikusten geundela tinbreak jo zuen. Beldurtu egin nintzen. Mirillatik begiratu eta, kontxo, nire lagun bat,

Migel Anjel Zubizarreta. Ireki nuen, eta haren ondoan, Iñakiren anaia Luis: «Iñaki bota daue!». Sartu nuen etxean eta lasaigarri bat eman nion. Hark eman zidan Gregorioren enkargua, ostatura igotzeko.

Perico Bazterretxea alkateari deitu nion: «*Perico, esto y esto, me ha pedido Gregorio que subamos arriba*».

Autoa hartu, Kanpazarrera igo eta han bi eszena ikusten ditu Altunak: harrigarria bata, mingarria bestea. Irudi harrigarria, ostatuaren atarikoak:

Hartu genuen automobila, igo ginen Kanpazarrera, eta ostatuak zeukan ate bat txikia, gainean farola batekin, eta han ikusten dut nire ezagun bat eskopetarekin! Eta Pericok esaten dit: «*¿Y ese?*», eta nik: «*No te preocupes, que a ese yo le conozco*». Sagasta baserrikoa zen, morroi zegoena ostatuan: «Sagasta, mesedez, emuidek eskopetie!». Berak ere ezagutzen ninduen: «Akabau egin biher jittuat horreik, akabau egin bihar jittuat! Kauen la letxe!». «Emuidek eskopetie!». Eta eman zidan, atera nizkion kartutxoak eta bueltatu nion eskopeta.

Nor da Sagasta? Zer egiten du armaturik? Gregorio Etxabe:

Sagasta oso etxekoa genuen. Laguntzen ibiltzen zen, almazenean, garajea, mantenimenu lanetan. Oso lagunak ziren Iñaki eta bera. Iñakik edozer gauza aginduta ere, hark egin egingo zuen, oso noblea zen. Iñakiren babespean ibiltzen zen, afinitate handia zuten.

Iñaki bota zutenean han zegoen. Iñakik eskopeta bat zeukan, eta Sagastak bazekien non zegoen. Eskopeta hartu eta badaezpada, hurrengo buelta bat bazegoen ere, hantxe jarri zen ostatu aurrean, bista-bistan, eskopetarekin.

Maria Angeles, Iñakiren alarguna:

Sagasta han inguruko baserri bateko mutilzahar bat zen. Ez zeukan lanik eta laguntzen hasi zen ostatuan, botilak erretiratzen, patatak zuritzen... eta gero ja bertan geratu zen lo egiten eta dena, gurekin bizi zen. Egun hartan uste dut lotan zegoela, jenderik ez zegoenez lanik ez zegoen eta.

Baina Sagasta ez zegoen lo, eta bere lagun maitearen heriotza ekiditerik lortu ez bazuen ere, hari zion fideltasuna azken muturreraino eramanez, zelatan jarri zen etxeko ate aurrean, eskopeta altzoan, kartutxoaz ongi beterik, hiltzaileei berriro itzultzea bururatzen bazitzaien tiroka ongietorria emateko asmo sendoarekin.

Altunak ikusi duen eszena mingarria ostatu barrukoa da:

Barruan zeuden Arrasateko parrokoa, Iñarra, gizon jatorra, eta Gregorio; Iñaki lurrean etzanda. Horrenbeste odol ez dut behin ere ikusi! Gizon handia zen gorputzez, gero! Eta nik egin nuen lehen galdera izan zen: «Mariangeles non dago?». Eta esan zidaten: «goixen dago, gelan». Gregoriok esan zidan odolez blai zegoela, Iñakiri emandako azken besarkadagatik.

EGUN HURA

Domeka hura ez zen besteak bezalakoa izan. Iluntzean, afal ostean, Elorrio eta Elgeta inguruko baserritar asko biltzen zen Kanpazarren, kafe bat hartu, pattar kopa bat, puruak piztu eta jokoan egitera. Afaltzen ere izaten zuten jendea.

Domeka hartan ez zen ia inor hurbildu, hiruzpalau auzokide izan ezik. Egun hitsa izan zen Debagoiena bailara osoan. Ustezko mendeku baten lurrina usaintzen zuten biztanleek, ikusi ezin zitekeen izuaren hegaldi baten marmarra erraieran sentikor eta kolpeka, ezjakintasun mingarri bat nondik eta nola etor zitekeenari buruz, eta zuhurtziaren agindua garunean, ez zaitez gehiegi agertu kalean, ez zaitez nabarmendu parrandan edo builan, gorde zaitez gaurkoz, utzi orduei igarotzen, utzi haien errabiari eta gorrotoari moteltzen, lokartzen.

Guardia Zibilaren helikopteroak arratsalde osoan biraka aritu ziren. Kontrolak zeuden leku askotan, Arrasateko tabernak goiz itxi zituzten, jendea ez zen ausartzen gauaz ateratzen. Oñatin, guardia zibilak cetmeak eskuan sartu ziren hainbat tabernatan, eta ixteko agintzen zuten. Nahi eta nahi ez, lutua ezarri nahi zuten Arantzazu inguruko herrietan.

Ainhoa, Iñakiren alaba gazteena:

Gogoan dut gerora gizon batek esan zidala: «Oroitzen naiz zuen aita hil zuten egunaz... Afaria geneukan elkartean, agertu ginen hara, baina laster etxera itzuli ginen. Arantzazukoa gertatu zenez, batek esan zuen: *«¡Ostia, vámonos a casa que viene algo!»*. Biharamunean jakin genuen zuen aitarena.

Garai hartan politikagintzan edo herrigintzan zerbait abiatzen zuen orok mehatxuak izaten zituen. Neurri baxuko izutze-lan eskergan aritzen ziren bai segurtasun indarrak bai haien babesa zuten eskuin muturreko molde askotako gerrillariak. Jose Antonio Altuna, alkateordea:

Niri kotxeko gupilak zulatu dizkidate, *Gerrilleros de Cristo Rey*-koek edo auskalo nork, ez dakit zenbat bider! Telefonotik mehatxuak jasotzen nituen... Horrela bizi ginen! Askotan pentsatzen dut kontaktzen dizkizudan hauek ametsetako kontuak direla, ez zela horrelakorik gertatu, baina, bai, gertatu ziren.

1975eko hondarrean Batallón Vasco Español (BVE) taldeko Bel-darrain izeneko komando batek hartu zuen bere gain Iñaki Etxaberen hilketa; Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroak eta Euskal Memoriak, aldiz, Triple A-ri leporatzen diote; eta Sophie Babyk *El mito de la transición pacífica* liburuan (2018) uste du ATE (Antiterrorismo ETA) izan zela. Sigla-dantza, nahasmena sortzeko propio eraikia.

Diego Carcedo kazetari espainiarrak liburu bat idatzi zuen 2004an, *Sáenz de Santamaría, el general que cambió de bando*. «Trantsizio garaian gure historiako gertaerarik polemikoenetakoen lekuko» izan zen jeneral espainola. Bertan hala dio (euskaratuta):

Lau talde klandestino zeuden poliziarekin batean, agintarien indiferentziarekin aritzen zirenak, eta askotan babesarekin ere bai.

Guerrilleros de Cristo Rey: haien buruzagi militarrek Mariano Sanchez Covisa eta Angel Sierra ziren, eta haien oso hurbilekoa, Triple A, zeinak, Argentinako erakunde kriminalaren antzera, atentatuak egin zituen euskal independentismoarekin lotutako pertsonen eta interesen aurka.

Beste biak, Batallón Vasco Español (BVE) eta ATE (Antiterrorismo ETA) aktiboak eta arriskutsuagoak izan ziren. Talde hauek guztiek nolabaiteko babes ofiziosoa zeukaten, eta hastapena SECEDen zeukaten. Carrero Blanco almiranteak sortu zuen SECED, Gobernuako presidente izan zen garaian, eta bulegoak izatera iritsi zen euskal hiri nagusietan, baita Hendaia eta Donibane Lohizune bezalako herri frantsesetan ere.

Denetatik BVE izan zen ekintza ugarien egin zituena. Gehienbat Valladolidekoak ziren militarren eta haien seme batzuek osatzen zuten taldea, baina bazituen Irunen eta Iruñean zeuden ofizial eta azpi-ofizialak ere tartean. Ejertzitoko armak zeuzkaten, eta haien mugimenduek –oso gaizki koordinatuak, bestalde– zigorgabetasun guztia zeukaten. Poliziak eta Guardia Zibilak haien ekintzen atestatuak jasotzen zituzten, baina ikerketa ez zen haratago joaten, lekuko batzuei deklarazioa hartu eta ekintzak eragindako kalteen deskribapen bat edo beste.

Iñaki Etxaberen hilketa BVEk erreibindikatu arren, Kanpazar gainean beste talde baten banderatzko bat agertu zen: *Cristo Rey*. Ez da kasualitate hutsa Altunak Kristo Erregearen gerrillariak aipatzea, Jose Javier Uribetxeberria *Txatuak* gogoan baitu Kanpazar atarian aurkitu zituzten banderatzok hilketaren ondoren:

Tabernan zeuden baserritarrek esaten zuten, eurak mahaian zeuden, eta brazaletе batekin sartu zirela, «Cristo Rey» jartzen zuena. Kanpoan aurkitu genuen haie-tako bat botata. Botata edo erori egingo zitzaien, auskalo.

Hiltzaileak atera eta berehala gazte kuadrilla bat sartu zen tabernan. Bilbotik zetozen, egun-pasa egin izango zuten, eta agian ez zeukaten Aran-tzazun gertatutakoaren berririk. Irudika ditzakegu alai, umoretsu, begiak lore eta odola diz-diz zainetan, azken tragoa hartzeko irrikaz, aldarte oneko gi-zonak gobernatzen zuen mostradorea hutsik aurkitu zutenean, eta isiltasun lodi bat hormetan aireari ausikika, metrailetak isuritako bala saldoaren du-rundia isildu denean beste soinu-rik ez duelako onartzen espazioak; ez bada, agian, Iñakik sukaldean piztuta utzi zuen telebistaren jario mehe urruna.

AURRERATUTAKO AGURRA

Zer da hilabete bat edozein gizakiren bizitzan? Zenbat denbora hartzen du hilabete baten igarobideak biografia baten egun ia infinituen samaldan? Iña-kiren heriotzak ez baldin badauka zentzurik, ezta pisuzko arrazoirik ere, esan liteke oso gutxigatik ez ziola heriori ihes egin.



Iñaki Kanpazar ostatuko leihoan, hil ondoreneko oroigarri batean.

Maria Angelesek oihartzun mingotsa eragiten duten esaldi horietako bat errepikatzen du: «Guztia hilabete bat beranduago izan balitz ez gintuzten harrapatuko».

Izan ere, Kanpazarretik alde egitekoak ziren laster. Eta Iñakik bizi-rik jarraituko zuen, familiaren bilakaera ezberdina izango zen, seme-alabak beste modu batean haziko ziren, beste modu batekoak izanen, ziurrenik, lo lasai egingo zuten ondoko urte guztietan, eta negar, berriz, egokitzen denean soilik, mundu guztiak bezala.

Hilabete bat, dio Maria Angelesek, baina mehatxuak, indar polizialen zelatatzeak eta izua eragiteko asmoz aurrera eramandako jazarpenaren bortxak hilabete asko zeramatzan Kanpazarreko ostatuaren inguruak ikaratzeko bertako biztanleen loa galarazten. Etxabetarrena seinalaturiko familia bat zen, eta hainbat senidek jasan zituzten erasoak eta atentatuak, batik bat Juan Josek eta Joakinek. Lehena Donibane Lohizunen bizi zen, bestea Baionan. Iheslari politikoak ziren, Juan Jose ETako buruzagi militarra izana zen; gero, 1971n, desadostasun estrategikoak zirela medio, militantzia hartatik aldentu bazen ere. Joakin anaia zaharragoaren arrimuan sartu zen ETAn, eta 1977ko amnistia legearekin itzuli zen herrira berriro.

Kanpazarreko ostatua poliziaren jomugan egon zen urte askoan. Horretarako bazuten talaia paregabe bat: ostatu aurrean zegoen harrobia.

Gregorio:

Harrobi hartan leherketak egin behar zirenean guardia zibilak etortzen ziren, tartean dinamita zegoelako. Orduan agertzen ziren, baina bestela ere bai. Askotan miatu zuten ostatua. Eta Kanpazarreko gainean kontrolak jartzen zituzten etengabe. Teorikoki gu haientzat etsaiak ginen, eta etsaiak zaintzen egoten ziren gau askotan ere, gu, alegia. Etxea zaintzen, hango mugimenduak.

Susmoa zuten jendea gordetzen genuela Kanpazarren. Leku hura markatuta zegoen, eta gure abizena ere bai, bi anaiak beste aldean zebiltzalako. Gainera Kanpazar leku babesgabea zen, isolatua zegoen, mendian, inguruan ez zegoen inor.

Beti zebiltzan handik bueltaka guardia zibilak. Jartzen zituzten kontrolak... tanke eta guzti! Ikaragarria zen haien presentzia! Tankeekin: «Baña honeik ze kristo jabitzek?», galdetzen nuen nik neure artean. Gure familia markatuta zegoen haientzako.

Noiznahi miatzen zuten ostatua, obsesio bihurtzeraino. Eta honek lehen gogoeta bat pausa lezake gure gogoan: hain setati zainduta zegoen leku batean nork egin zezakeen atentatu bat haiek jakin gabe? Nor sartuko zen

han metrailetekin haien baimenik gabe? Nor ausartu zitekeen paraje hartan hilketa bat egiten eurak izan ezik?

Pauso bat bortitzago zihoan ekintza bakoitza.

Urte bereko maiatz aldera su eman zioten ostatuari. Gasolina paretan igurtzi eta su eman zioten. Ur-baldeak hartu eta itzaltzen aritu ziren etxe-koak, eta ataria berriro margotu behar izan zuten. *Diario de Avilak* dio, maiatzaren 13ko alean, goizeko ordu bietan indar gutxiko lehergailu batek eztanda egin zuela Etxabe-Enea ostatuan.

Granada bat izango zen, Patriren ustez. Patri Etxabe Iñakiren anaia da. 1946an jaioa, Donostian bizi da gaur egun:

Gogoratzen naiz granada bota zutenean ostatura, granada hura ejerzituarena zela. Soldadutzan ikusia nuen nik haien eskudoa nolakoa zen, eta hura bera zeukan jatetxe aurrean lehertu zen granadak. Izan ere, Granadaren kaskoa han lurrean zegoen, eta horregatik dakit hori. Ez zen Guardia Zibilarena, ejerzituarena baizik.

Gogoratu aipatu dugun liburuan Santamaríak zioena: «(BVEkoek) Ejertzitoko armak zeuzkaten».

Maria Angeles:

Uste zuten jendea gordetzen genuela. Suarena izan zen uste zutelako sua ikusita barruan zeuden militanteak irten egingo zirela. Baina han ez zegoen inor. Ez genuen lotarako ostatu zerbitzurik ematen, noizean behin kamioi gidariren bati edo ez bazen. Lan asko egin behar izaten genuen jatetxean, eta gehiagorik ezin genuen hartu.

Baina haiek uste zuten ostatuak zeuzkan logelak jendea gordetzeko erabiltzen genituela.

Etxabetarren familia ugari hartan Patri ez zegoen susmagarrien lehen lerroan, baina halere susmopean bizi zen bera ere, jazarpen polizialaren presioa gainetik kendu ezinik:

Kanpazarko ostatua oso kontrolatuta zegoen, zaintzen egoten ziren, bai Goi-mendiko bidetik, bai harrobitik... Zaintza lan hori eguneroko ogia zen guretako, gauza jakina zen kontrolatzen ari zirela.

Garai hartan, Bergaran, nire etxe ondoan, parean bizi zen nire emaztearen ama, eta etorri zen esatera baten bat ikusi zuela kalean goraxeagotik niri begira, eta gabardinarekin eta metrailetarekin zegoela.

Garai haietako beste kontu bat. Errioxar hornitzaile batekin nengoen eta gure etxean afaldu ostean bertan geratu zen lotan Errioxara joan beharrean.

Handik hamar egunera, berarekin elkartu nintzen eta esan zidan «*Oye, me han parado en un control y me han preguntado a ver con qué compañías ando yo!*». Pentsa! Nirekin horrela bazebiltzan, Kanpazarrekoekin nola ibiliko ziren!

Setio bat zuen jarria poliziak ostatuaren inguruan, Etxabetarrei etengabe atentatu txikien bitartez oroitarazten zietena.

Granadaren ondoren, beste pauso bat eman zuten: uztail inguruan ostatuko fatxada tirokatu zuten metrailetaz, eta aparkaturik zeuden autoak. Familiak 226 bala-zorro jaso zituen.

Olatz, alaba zaharrenak: «Gure gurasoak beldurtu egin ziren, ez ziren seguru sentitzen han, eta beste lokal baten bila zebiltzan Arrasaten, beste jatetxe bat ipintzeko».

Baina Iparraldetik ere iristen ziren albisteak ikara are astunago bihurtzera: urte hartan bertan, ekainean, lehergailu bat zartatu zuten Joakin Etxabek Baionan zeukan *Udalaitz* jatetxean.

Eta beste pauso bat: justu Iñaki hil bezperan, urriaren 4an, justu 24 ordu lehenago, iluntzeko hamaika eta erdietan bonba batek Juan Jose anaiaren autoa txikitu zuen Donibane Lohizunen. Txalaparta argitaletxeak 1993an atera zuen *Euskadi eta askatasuna* liburu sailean, Xabier Amurizak elkarrizketa sakon bat egin zion Juan Jose Etxaberi, eta bertan honela dio arrasatearrak:

Jatetxe bat nuen Donibanen, eta jatetxe aurrean zegoen autoan jarri zuten suzko bonba, anaia erail baino hogeita lau ordu lehenago. Bonba hori gaueko hamaika eta erdietan lehertzeko programatuta zegoen, ordu horretan ateratzen bainintzen ni normalean jatetxetik. Baina larunbat hartan atzeratu egin nintzen pixka bat... eta ez ninduten harrapatu. Autoa kixkalita geratu zen.



Iñaki eta Juan Jose Etxabe, aitarekin Iparraldean.
Umea Ainhoa da. Arriskuak hasiak ziren ordurako.

Erreskadan zetozen kolpeak senitarte harentzat, kolpe txikiak, edozeini loa galarazteko modukoak, eta kolpe handi baten iragarle, agian. Iñakiren heriotzarekin ez baitzen jazarpen kriminal hau amaitu: 1978an atentatu bortitza jasan zuten Juan Josek eta Agurtzane Arregi emazteak. Auto barruan zeudela metrailatu zituzten. Agurtzane bertan hil zen, 17 tiro hartuta. Juan Josek 18 tiro jaso zituen, baina hilabete hilzorian egon ondoren, bizirik atera zen mirariz.

Iñakiren heriotzaren berri izan zuenean, berehala ulertu zuen Juan Josek abizena zutela jomugan, Etxabe, eta ez gizona, Iñaki:

Asko kostatu zait jazoera haietatik bueltatzea, zeren, neu nintzela eta, gizona baino izena hiltzera zihoazen. Eta anaia izan zen atzeman zutena, ni atzeman beharrean.

Mendiaren bakardadea utzi eta herriaren babesa aurkitu nahi zuten Kanpazarko ostatuko biztanleek, lekukoak egon zitezela, dendak, taxiak, autobusak, jendea erosketak egiten, jende multzo bat egunero jatetxe inguruan, haiengana iristea zailduko zuena, guardia zibilek, trajez edo kalez jantzirik ere, edo haien inguruko eskuin muturreko mertzenarioek askotan lekukoen axolarik gabe ere metrailetak sutan jartzen zituzten arren, gero ikerketarik abiarazi ere egingo ez zuen Estatu baten babesean zeudela ongi jakinik.

Maria Angeles:

Beldurrez genbiltzan, bai, gauez ez genuen lorik ere egiten. Lokal bat ikusia genuen Arrasaten, San Andres auzoan, nagusiarekin hitz eginak geunden, eta huraxe hartzekotan genbiltzan hilabete barru edo.

Baina Arantzazuko ekintza gertatu zen urriaren 5ean, domeka egunez. Atentatu gogorra, kolpe latza Guardia Zibilarentzat, indartzen eta ausartago jokatzeko ari zen ETaren demostrazio gotor bat. Ezustean harrapatu zuten ikurrina bat kentzetik Arantzazun beheara zetorren Land Roverra, eta amorruak gainezka egin zuen Kanpazarrekin tematuta zegoen polizia saldo haren zainetan.

Iñaki urduri zegoen egun hartan. Gisako egoerak ikusiak zituen, baina orduan bazen airean mehatxu-lurrin bat, aieru bat. Patri Etxabek honela oroitzen du zoritzarreko egun hura:

Egun hartan Nuarben egon ginen, Otaegi hara ekarri zuten eta han egon ginen goiz hartan. Arratsaldean Kanpazarrera jo genuen. Iñakirekin egon ginen, eta

gogoratzen naiz esan zidala: «Urduri nak, helikoptero bat hor gainien jabik, eta banaixuek umiek batzen Mondrauera. Urduri nak!». Horiek izan ziren esan zizkidan azken hitzak.

Mari Lourdes Etxabe, Marilu, Iñakiren arreba da. 1945ean jaioa. Hark ere oroitzen du egun hartan sentitu zuten ikara:

Arantzazukoa gertatu zenean, «ai ama!», beldurra sentitu genuen; Kanpazarren jende arraroaren presentzia sumatu zuten egun hartan. Ni bazkalostean igo nintzen, eta esan nion: «Iñaki, zerrau egizu tabernie eta bajau nire etxera».

Alabaina, Iñakik ez zuen taberna itxi; ez zuen, agian, bizitza salbatuko zion ekintza xume hura egin, argiak itzali, giltza sarrailan sartu eta taberna itxi, inguruko herrietako taberna askok egin zuten legez. Marilu:

Iñakik azkenengo bidaia nirekin egin zuen Arrasatera, bere semea hartzera. Kalerak jaisten zuen semea, egun guztia han goian eduki beharrean, eta beste amaren etxean bazkaldu eta horrela ibiltzen ziren. Gu beti beldurrez egoten ginen, hainbeste gauza egin zioten ostatuari! Eta esan nion: «Ene, Iñaki, besterik ez bada, etorri zaitte nire etxera». Eta berak: «Bo, bo, lasai, lasai!».

Horrela, iluntzeko zortziak edo zortzi eta erdiak aldera berarekin jaitsi nintzen herrira, semearen bila joan zenean.

Hurrengo Luis anaiaren bisita izan zen, gauean, begitartea beltz eta zoritxarra ahoan: «Luis, beste gizon batekin, etorri zitzaidan esatera Iñaki hil zutela».

Patrik ere izan zuen zoritxarreko bisita:

Gu Bergaran bizi ginen, eta koinatua, Txato, etorri zen esatera zer gertatu zen. Hamabiak ziren. Ni lo nengoen, eta txirrina jo zuten. Izugarritzko sustoa hartu nuen! Behetik esan zigun zer gertatu zen. Ezin zitekeen! Aztoratu egin nintzen. Gogoan dut, buruarekin jo nuela horma. Jaitsi eta berarekin igo nintzen Kanpazarrera... Gogoratzen naiz gau iluna zela, laino itxikoa.

Agian, kasualitateak ere marraztu zuen bide bat patuaren historian: Hiru egun lehenago Iñaki Etxabe Arantzazura igo zen, Goiko Benta ostatura. Bertako jabea, Migel Maiztegi, oso laguna zuen. Jorge Oteiza ere Goiko Bentan egona zen apostoluak zizelkatzen ari zen garaian, eta hura ere lagun mina zuen Migel Maiztegik. Eustakio Mendizabal *Txikia* ETako buruzagi mitikoak ere ezagunak zituen inguru haiek.